

irudietan



EDURNE KOCH

Informatzaile grafikoaren obren erakusketa. Atzo Oiartzungo Pagoarte erakusketa aretoan Euskal Herriko Informatzaile Grafikoaren Elkarteak antolatutako erakusketa bat zabaldu zuten. Bertan informatzaile grafikoaren hainbat lan ikusi daitezke eta hilaren 28ra arte egongo dira bertan.



XOUSE SIMAL

Aizu! aldizkariaren berragerraldia. Aizu! AEKko hilabetekari berrituaren lehenengo alea aurkeztu zuten atzo Bilbon. Ekitaldiak, AEK eta Aizuko ordezkariak gain, euskal kultur mugimenduen hainbat lagun bildu zituen. Ana Unanue aldizkariaren koordinatzaileak Aizuren aldaketan berri eman zuen.

Azpeitian 'Uztarrria' herri aldizkaria sortu dute, euskara hutsezko argitalpen berria

Izen bereko kultur koordinadorak sustatu eta argitaratu du publikazioa

Arantxa Iraola / Donostia

Euskarazko herri aldizkari berri bat sortu da: Uztarrria. Azpeitiako Uztarrria Kultur Koordinadorak sustatu eta argitaratu du publikazio berria eta Gipuzkoako udalerririk horretako kontuak ditu ardatz nagusi. Momentuz hilabetekaria izango da aldizkaria baina etorkizunean hamabostekari bihurtu nahi dute eragileek.

Uztarrria Azpeitiko 23 kultur talde elkartzeko dituen kultur koordinadora da, iazko apirilean eratua. Herriko kultur taldeen jarduna koordinatzeko asmoz sortu zen, eta bide batez herrian euskararen normalizaziorako urratsak egiteko nahian. Xede horien barruan sartu zuten euskarazko herri aldizkari bat sortzeko helburua ere. «Batez ere herriko informazioa lantzeko, ez bai-

tzegoen orain arte herri aldizkaririk Azpeitian», azaldu dio EUSKALDUNON EGUNKARI-ri aldizkari berriko lehendakari Iban Arregik.

Hilabete honetan estraineko alea argitaratuz urraturiko bidea etenik gabe jarraitu nahi dute datozen hilabeteetan eta etorkizun urrunagoan –«ahal izango balitz udara ondorenean»– aldizkaria hamabostekari bihurtzea gustatuko litzaieke.



Aldizkariaren azala.

Lehendabiziko zenbaki honen 5.500 ale argitaratu dituzte eta herri osoan banatzen ari dira. Aldizkaria eza gutzera eman nahi dute eta aurki harpidetza bidez zabal-

du nahi dute azpeitiar guztiengana. Momentuz, hala ere, aldizkaria herrian ondo errotzea dute helburu eta lan egiteko modu egituratu bat antolatzen joatea. Izan ere, estraineko ale hau kultur koordinadorako talde eragileak atondu du, baina apurka-apurka erredakzio-talde polit bat elkartu nahi dute aldizkariaren inguruan.

Aldizkaria eratzeke orduan Euskara Elkartearen Topaguneko kideen laguntza eta babesa izan dute, eta beste hainbat udalerritako publikazioak izan dituzte eredu. Hala, batez ere euskara batua erabili dute, baina aldizkariako pasarte batzuek azpeitiarrez idatzi dituzte, bertako euskararen.

Internazionalista Eguna izango da gaur Astigarragan

Erredakzioa / Donostia

XXI. MENDEKO elkartasuna aurrera eramant! hitzikurra lau haizeetara zabaldu nahian gaur Astigarragan Internazionalista Eguna ospatuko da. Askapena Herriekiko Euskal Elkartasuna erakundeak antolatutako, egun beteko jai egitaraua gozatu ahal izango da bertan goizeko 10:00etatik aurrera.

Gipuzkoako udalerrria hainbat gunetan banatuko dute eta guztietan tankera orotako ekitaldiak egongo dira. Antzerkia, dantza, bertsolaritza, musika... Festa giro betearen eragile izango dira horiek guztiak eta bide batez, askatasun, justizia eta duintasunaren aldarrikapenekin uztartuko dira jaiaren benetako xedea gogoan hartuz.